

ONARPEN PROZESUKO BAREMOA- 2024-2025

LEHENTASUNEZKO IRIZPIDEAK	Puntuazioa
Anai edo arrebaren bat ikastetxe horretan matrikulatuta egotea	Geh. 3
Gurasoen edo legezko ordezkarien bizilekua edo lantokia gertu izatea	Geh. 10
Udal titulartasuneko ikastetxeetan:	
- Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoaren barneko udalerrri batean (horretarako akordioa ezarria duten udalerrietan).	10
- Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik eskaeraren xedeko ikastetxea dagoen udalerrian edo eraginpeko eremu geografikoan.	2
Hezkuntza Departamentuaren titulartasuneko ikastetxeetan:	
- Haurra eta, gutxienez, gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat erroldatua egoteagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerrri batean.	10
- Gurasoetako edo legezko ordezkarietako bat, gutxienez, lanean aritzeagatik Nafarroako Foru Komunitateko udalerrri batean.	2
Familia-unitatearen per capita errenta	Geh. 3
- Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia edo hori baino txikiagoa bada (7.938 eurokoa edo txikiagoa)	3
- Lanbide arteko gutxieneko soldataren erdia baino handiagoa eta horren hiru laurden adinakoa edo txikiagoa bada (7.938 euro baino handiagoa eta 11.907 eurokoa edo txikiagoa)	2
- Lanbide arteko gutxieneko soldataren hiru laurden baino handiagoa eta soldata hori bera edo txikiagoa bada (11.907 euro baino handiagoa eta 15.876 eurokoa edo txikiagoa)	1
- Lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoa (15.876 euro baino handiagoa)	0
Haurrak desgaitasuna izatea, edo haren guraso, legezko ordezkari edo anai edo arrebaren batek	Geh. 2,5
- Ikaspostua eskatzen duen haurrak desgaitasuna badu.	2
- Ikaspostua eskatzen duen haurraren gurasoek edo legezko ordezkariak edo anai-arrebek desgaitasuna badute.	0,5
Genero indarkeriaren edo terrorismoaren biktima izatea	Geh. 1
Bi inguruabarrak edo bietako bat gertatzen bada	1
Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxean lan egitea	0,8
Gurasoek edo legezko ordezkariak ikastetxe horretan lan egiten badute.	
Legez familia ugariko kide izatea	0,8
Haurra familia-harrerako egoeran egotea	0,8
Familia gurasobakarra izatea	0,8
Erditze anizkoitzean jaioa izatea	0,8

IRIZPIDE OSAGARRIA	
(Kontuan hartuko da, bakar-bakarrik, baldin eta berdinketa mantentzen bada, Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 1eko 16/2024 Foru Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera)	
Familia orokorrak Bi gurasoak edo legezko ordezkariak honako egoeretako batean badaude: lanean, Gizarte Segurantzaren alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan.	1
Guraso bakarreko familien kasuan edo guraso bakarreko familia izan gabe zaintza eta jagoletza eskusiboa duen gurasoaren kasuan Gurasoa honako egoeretako batean badago: lanean, Gizarte Segurantzaren alta emanda, lehentasunezko dedikazioa eskatzen duten ikasketa arautuak egiten (dedikazioak behar bezala justifikatuta egon beharko du) edo ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoera aitortuan.	1